



**Fantasiako eta Beldurrezko
Zinemaren Astea**
**Semana de Cine
Fantástico y de Terror**
**Horror and Fantasy
Film Festival**



Zabalik “Sanjulián – Fantasiako artearen maisua” erakusketa Okendo Kultur Etxean

Donostiako Fantasiako eta Beldurrezko Zinemaren 32. Asteak eta **Corner4art** galeriak (Sitges, Bartzelona) erakusketa bat aurkezten dute, **Manuel Sanjulián** (1941) ilustratzaile bartzelonarrari eskainia. Erakusketa **irailaren 27an** inauguratuko da **Okendo Kultur Etxean** eta **azaroaren 13ra** arte egongo da zabalik. Bertan, Sanjuliánen ehun bat lan ikusi ahal izango dira.

Urriaren 29tik azaroaren 5era arte izango den Beldurrezko 32. Astean zehar Sanjulián bera izango dugu Donostian publikoarekin bere obraz hitz egiteko.

Erakusketaren barruan **Sanjulián, el poder de la ilustración** (2021) dokumentala estreinatuko da, David García Sariñenak zuzendua, eta erakusketaren iraunaldi osoan zehar ikusi ahal izango da.

Sanjulián – Fantasiako artearen maisua

Seguru unerren batean **Manuel Pérez-Sanjulián Clementeren –Sanjulián** bezala ezagunagoa– ilustrazioren bat topatu duzula. Agian orduan ez zenuen jakingo berea zela, baina ziur ez zenuela erraz ahaztuko. Horrelakoxea da bere obra: erraietakoa, zirrargarria, liluragarria. Eta hala ere, Espainian ozta-ozta hasia zen aintzatetsia izaten Estatu Batuetako merkaturako bere lana *Dossier Negro*, *Vampus* edo *Rufus* aldizkarien bidez iristen ari zen bitartean. Argitalpen horiek, 70eko hamarkadan, Warren Publishing-en material originala argitaratzen zuten (jakina, garai hartako zentsura nonahikoak filtratua beti).

Lehen etapa profesional baten ondoren, non gidoilari eta marrazkilari bezala bidea egiten saiatu zen, Sanjuliánek bere tokia aurkitu zuen atzerriko merkaturako ilustrazioan. Testuinguru profesional horrek jarduteko askatasuna ematen zion (eta, horren barruan, Espainia frankistarentzat ezinezkoak ziren xehetasun erotikoak sartzeko aukera) eta horrek ahalbidetu egiten zion olio-pinturaren teknikan zuen nagusitasuna eta bere detallismo adierazkorra aplikatzea. Eraginen nahasketa bat da bere artea, Hal Fosterretik Diego Velázquezera, besteren artean, Frank Frazetta eta Francisco de Goyatik igarota. Eta irudimenezko leherketa batean ermetzen da, non koloreen erabilera bereizgarriak eta, batez ere, irudiek koadroaren gainean duten antolamenduan eta konposizioan jarritako arretak egiten duten distira.

Hala ere, maitasunez (eta nostalgia apur batez) Warren-eko bere etapa hura gogoratzeak ez luke ezkutatu behar Sanjuliánen irudiaren benetako handitasuna. Zeren eta, ilustratzaile on batez ari garenez gero, bere estiloa, pertsonala eta antzemangarria beti, egokitu eta moldatzeko gai baita zehaztasun handiagoaz islatzeko abiapuntuko materialen izaera. Horregatik da bere Conan hori, bere Frazetta miretsiaren eraginpean bada ere, Conan besterenezin bat erabat. Eta berdintsu gertatzen da *western* eremura egiten dituen hurbilketekin (lehorrak, laburrak); errepikaezina da generoarekiko darien maitasuna, baita, oro har, zinemarekiko ere. Zazpigarren artearekin zuen lotura pertsonal eta profesionala Hispano Foxfilm-en egin zituen lehen urratsetatik zetorren. Hala, ibilbide horrek eman zizkion pelikulen kartelak konposatzeko oinarriak eta, ordurako erabat heldua zen bere estilo berezkoarekin, distirarazi egin zuen *The Empire Strikes Back* (1980) filmerako bere bozetoan eta Juan Piquer Simónek in izan zituen kolaborazio guztietan.

Tonio L. Alarcón